

2022/04/30era

**Inbertsio-politika (laburpena)**

Funtsak bere ondarearen %50etik gora inbertitzen du beste IKE finantzario batzuetan. IKE harmonizatu gabeetako inbertsioa ez da izango ondarearen %30 baino handiagoa. Esposizioaren %15 eta %60 bitartean errenta aldakorrean inbertituko da. Gainerako zatia errenta finkoan inbertituko da, barne hartuz gordailuak eta dirumerkatuko tresnak, kotizaziokoak izan ala ez, likidoak badira betiere. Aldez aurretik ez da ezer erabakitzen jaulkitzaileei buruz, edo baloreek kotizatuko duten herrialde edo merkatuei, jaulkipenen nahiz jaulkitzaileen ratingari, dibisa-arriskuari, zorroaren batez besteko iraupenari, burtsako kapitalizazioari edo sektore ekonomikoari buruz.

\*Funts honek ingurumen alderdiak edo alderdi sozialak sustatzen ditu (2019/2088 (EB) Erregelamenduan 8. Art).

\*Inbertsio-politikaren azalpen xeheagoa funtsaren IFD dokumentuan ikus daiteke.

\*FUNTS HONEK %85 INBERTI DEZAKE ERRENTA FINKOKO KREDITU-KALITATE TXIKIKO JAULKIPENETAN, HAU DA, KREDITU-ARRISKU HANDIKOETAN.

**Ezaugarri Orokorrak**

Ondarea:	330.801.439,13
Komisioak guztira:	%1,30
Harpidetza komisioa:	%0,00
Errenbolto Komisioa:	%0,00
Fondo mota:	NAZIOARTEKO ERRENTA ALDAKOR MISTOIA
Arrisku-profila:	4 1-etik 7- rako eskalan
Inbertsiorako gutxieneko epea:	3 urte

**2022/04/30era Errentagarritasunak UTB**

<b>1 hilekoa*</b>	<b>3 hilekoa*</b>	<b>Urtekoa*</b>	<b>Urte 1</b>	<b>3 urte</b>	<b>5 urte</b>
-%2,79	-%4,66	-%7,88	-%4,45	%2,42	--

\*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekotzen.


<b>2022</b>	<b>2021</b>	<b>2020</b>	<b>2019</b>	<b>2018</b>	<b>2017</b>
-%7,88	%7,50	%4,40	%12,12	--	--

\*Iraganeko errentagarritasunak ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunik.

**2022/04/30era Estatistikak**

<b>Lurrunkortasun 1 urte**</b>	%7,43
<b>Lurrunkortasun 3 urte**</b>	%8,44


\*\*Informazio hau ez dago erabilgarri, fondoen antzinasuna edo inbertsio-politikaren azken aldaketatik igaro den denbora, adierazitako epea baino txikiagoa denean.




**Hileko iruzkina**

Apirilean zehar, tentsio geopolitikoek eta makroekonomikoez gain, banku zentralak aurreratutako tasen igoera, Txinako COVIDaren ondoriozko murrizketak eta lehen hiruhilekoko enpresa emaitzen argitalpena gehitu zaie. Batetik, badirudi Ukrainako bake negoziazioek porrot egin dutela eta, horrek ekonomien gaineko gerraren inpaktu sakonago bati beldurra eragin du. Bestetik, Txinak Koronabirusaren aurka borrokatzeke ezarritako konfinamendu neurri zorrotzek eragin handia izan dute salgaien garraioan, eta hornikuntza kateetan arazoak izan dira berriz ere. Horrek berriro handitzen du herrialde garatuetan bizi den tentsio inflazionista. Ondorioz, Banku Zentralek tonua gogortu dute inflazioaren igoera gerarazi eta prezioen egonkortasunari buruzko konpromisoa betetzeko. Erreserba Federala bada ere igoeren prozesu honetan erakunde aurreratuena, BCEak onartu du urte bukaeran interes tasak igo ditzakeela. Bien bitartean, makro ingurunean, datu batzuek agerian uzten hasi dira jardueraren moteltzea. Hortaz, Europan, AEBn eta Txinan, lehenengo hiruhileko BPGren datuetan oinarrituta, hazkuntza nabarmen moteldu dela ikus dezakegu. Azkenik, arlo politikoan, garrantzitsuena Macronek hauteskunde presidentzialak irabazi dituela izan da, bere bigarren agintaldia eskuratuz. Agertoki honen aurrean, ez da harrizkeoa burtsak apirila zuzenketa sakonekin bukatu izana. Europan garrantzitsua izan da zigorra, batez ere Errusiaren eraginpean gehien egon diren merkatuetan, hala nola Alemanian eta Frantzian, % 2 inguru utzi baitute. Aldiz, Espainian eta Erresuma Batuan hilabetea positiboan itxi dute. Ibx35 % 1,65 igo da, azken hiru hilabete hauetako bolada txar honi bukaera emanez, eta britainiako FTSEak % 0,38 aurreratu du. Wall Streeten erregistratutako murrizketak nabarmenagoak izan dira. Adibidez, Nasdaqek % 11ko atzerapena izan du, 2008tik izandako hilabete txarrean. Nazioarteko gainerako merkatuetan, -% 3,50eko jaitsierak Japoniarentzat eta zenbaki gorriak gainerako gehienetan. Hilabete honetan kalterik handiena errenta finkoak jasan du. Inflazioaren tentsioak eta banku zentralen egitekoek zor subiranoaren errentagarritasunaren gorakada bat ekarri dute Atlantikoaren bi aldeetan. Beraz, bonu alemanaren errentagarritasunak oinarritzko 39 puntu irabazi ditu apirilean, % 0,94 arte. Espainiako bonua 10 urtera 54 puntu igo da, % 1,97 arte, 2015etik lortzen ez duen maila izanik. Bestetik, AEBn, 10 urterako zorrak % 2,93ko errentagarritasuna eskaintzen du, aurreko hilean baino 60 o.p. gehiago. Bestalde, errenta pribatuak ere diferentzialak areagotu ditu. Azkenik, dibisen merkatuan euroak % 4,7 galdu zuten, 10 urtetako hileko balantzerik okerrenea izanik.

**Zorroaren banaketa**



**Errenta aldakorreko zorroaren banaketa geografikoa**



Dokumentu honen xedea informazioa ematea da eta inola ere ez da, ez kontratu-elementua, ez gomendioa, ez aholkularitza pertsonalizatua, ez eskaintza, eta ezta eskaera ere. Dokumentu honek ez du ordetzen edozein inbertsio erabaki aurretik legez kontsultatu beharreko informazioa; legezko informazioa nagusitzen da edozein desadostasun izanez gero. Inbertsioak merkatuaren gorabeheren mende daude, eta baloreetako eta beste finantzatresna batzuetako inbertsioetako berezko arriskuei lotuta; horregatik, funtsaren eskuratzeko balioak eta lortutako errentagarritasunak gora nahiz behera egin lezakete, eta litekeena da inbertsioegileak hasieran inbertitutako zenbatekoa ez berreskuratzea. Funtsaren legezko informazio-dokumentu guztiak (IFD, liburuxka, aldizkako txostenak, etab.) [www.kutxabankgestion.es](http://www.kutxabankgestion.es) webgunean, entitate komertzializatzaileen webgunean eta CNM/ren erregistroetan kontsulta daitezke.